



V. ERANSKINA

INGURUMEN EBALUAZIO

ESTRATEGIKOAREN ESKABIDEA

I.– Sarrera eta aurrekariak

I.1.– Aurreikusitako plan edo programaren datu orokorrak

Plan edo programaren titulua edo xedea

Izenburua

Pasaia (Gipuzkoa) Hiri Antolamendurako Plan Orokorra

Xedea

Plan Nagusiaren helburua udalerriko antolamendu urbanistikoa ezartzea da Lurzoru eta Hirigintzari buruzko, ekainaren 30eko, 2/2006 Legeak zehaztutako hedadura eta kompetentziekin: a) Izaera minimoaz, udalerri osoaren egiturazko antolamendua eta Plan Nagusiak hiri-lurzoru kontsolidatu kategorian sartuko duen hiri-lurzoruaren antolamendu zehatza. b) Hautazko izaeraz, sektorizatutako lurzoru urbanizagarriaren eta Plan Nagusiak hiri-lurzoru kontsolidatu kategorian sartuko ez duen hiri-lurzoruaren antolamendu zehatza, bi kasuetan antolamendua garapenezko planeamendura igorri ahalko da

Izapide mota

Berrikuspena

Tresna mota

HAPN >7.000 biztanle

Beste batzuk, estrategikoak (zehaztu):

Beste batzuk, zehaztapen georreferentziagarriak (zehaztu):

Antolamenduaren esparrua

X EAE

X Lurralde Historikoa

☐ Araba

☐ Bizkaia

X Gipuzkoa

☒ Eremu funtzionala (zehaztu): Donostialdea (Bidasoa-Beherea)

☒ Udalerria (zehaztu, hainbat udalaz gaindikoa bada): Pasaia

☐ Beste batzuk (zehaztu):

☐ Udalaz azpikoa (zehaztu):

Udalerria:

Esparrua:

UTM koordenadak (poligono sinplifikatu inguratzailea):

Azalera:

Plangintzan sartutako gaiak:

☐ Nekazaritza

☐ Abeltzaintza

☐ Basogintza

☐ Akuikultura

☐ Arrantza

☐ Energia

☐ Meatzaritza

☐ Industria

☐ Garraioa

☐ Hondakinen kudeaketa

☐ Ur-baliabideen kudeaketa

☐ Jabari publiko hidraulikoa edo itsas-lehorrekoa okupatzea

☐ Telekomunikazioak

☐ Turismoa

☒ Lurraldearen antolamendua

☒ Hirigintza

☒ Beste batzuk:

☒ Biodibertsitatea

☐ Klima-aldaketa

☒ Informazioa eta parte-hartzea

☒ Beste batzuk (zehaztu):

Planaren edo programaren beharra eta egokitasuna justifikatzea

Pasaia hirigintza-antolamendua Arau Subsidiarioek (AS) arautzen dute. Arau horiek 1996 ekainean 11 onartu ziren behin betiko, eta araudia 1996ko abuztuaren 13an argitaratu zen. Beraz, berrikusi egin behar da, denborak aurrera egin ahala. Bestalde, berrikusteko premia materiala sumatzen da, urte hauetan guztietan aldaketak egin baitira hirigintza-, lurralde- eta sektore-araudian, hiri-ereduetan, diseinu grafikoan, katastro-oinarrien zehaztasunean eta informazio geografikoko sistemen erabilgarritasunean.

Azkenik, egiten den berrikuspenak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoa beteko du, planak lege horren indarraldiari eta hari egokitzeari dagokienez.

Plan edo programaren eskumenak legitimatzea

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 90.1. artikuluan ezartzen duenaren arabera Plan Orokorren formulazioa Udalari dagokio, eskumen honi jarraiki udalak ASen berrikuspen hau sustatzen du.

Dekretu honen arabera ingurumen-ebaluazioa jasotzeko legeko kasua

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren IA. eranskina

☐ 1.- Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak.

☐ 2.- Lurralde Plan Partzialak.

☐ 3.- Lurraldearen Arloko Planak.

☒ 4.- Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

☐ 5.- Sektorekatze-planak.

☐ 6.- Ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen plangintza orokorraren bateragarritasun-planak, hiri-antolamendurako plan partzialak eta hiri-antolamendurako plan bereziak.

☐ 7.- Ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen aurreko planen aldaketak.

☐ 8.- Honako baldintza hauek betetzen dituzten planak edo programak:

a.- Herri-administrazio batek eginda edo onartuta egotea.

b.- Lege- edo arau-xedapen batek edo ministro-kontseiluak edo autonomia-erkidego bateko gobernukontseiluak eskatuta egin edo onartuta egotea.

c.- Ingurumenaren gainean ondorio nabarmenak eduki ahal izatea.

d.- Arlo hauetakoren batekin lotura edukitzea: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, akuikultura, arrantza, energia, meatzaritza, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, ur-baliabideen kudeaketa, itsas-lehorreko jabari publikoaren edo hidraulikoaren okupazioa, telekomunikazioak, turismoa, hiriko eta landa-eremuko lurraldearen antolamendua eta lurzorua erabileraren antolamendua.

Ondorengo kasu hauetan, badira ezaugarri edo egoera batzuk ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin beharra dakartenak, ingurumenari nabarmenki eragingo zaiolako:

☐ Ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzea legezko betebeharra duten egitasmoak bihar-etzi baimentzeko esparrua zehazten dutenean.

☐ Zuzenean edo zeharka, Natura 2000 Sareko eremu bati era nabarmenean eragitea gerta daitekeenean.

☐ Ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzko oinarritzko legeria edo Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeko legeria aplikatuz emandako arau-xedapen orokorrek edo nazioarteko hitzarmenek eragindako ingurumen-babeserako erregimenen bat duten eremuetan eragiten dutenean.

Batera bildutako administrazio-eskumenak

Organo sustatzailea:

Pasaiaiko Udaletxea

Oinarritzko organoa edo behin betiko onartzeko arduraduna:

Pasaiaiko Udaletxea

Ingurumen-organoa:

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila

I.2.– Plan edo programaren aurrekariak

Tresna	Plan edo programa behin betiko onartzeko data	Haren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azalpen laburra eta zehaztapen nagusiak
		(1.000 karaktere)
Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak (LAG)	Uztailaren 30eko 128/2019 Dekretua	Antolamendu kategorien erregulazio orokorra
Donostialdea Bidasoa-Behereako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala	121/2016 Dekretua, uztailaren 27koa 1. aldaketa, irailaren 22ko 151/2020/2009 Dekretua	Donostialdea Bidasoa-Beherea Eremu Funtzional osoaren antolamendu integrala. 1. aldaketa. Paisaiaren zehaztapenak gehitzen ditu lurralde-plangintzan
Lurraldearen Arloko Planak	(Ikusi 2.2. atala)	Arlo bakoitzean lurraldearen antolamendua eta hirigintza plangintzari dagozkion zehaztapenak arautzen ditu. Pasaiai zehazki dagozkion zehaztapenak V. Eranskin honetako 2.2. atalean jasotzen direnak dira.

Tresna	Plan edo programa behin betiko onartzeko data	Haren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azalpen laburra eta zehaztapen nagusiak (1.000 karaktere)
Udal Plangintzaren Arau Subsidiarioak	1996/06/11 behin betiko onartu, eta araudia 1996/08/13 argitaratu	Ez zuen IEE jasan

I.3.– Aurreikusitako plan edo programaren izapideak.

Erreferentziako agiriaren eskaeraren aurretiko faseak azaltzea

Administrazio-egintza	Data		Organo igorlea	Lotutako dokumentazioa (Arau-erref.)
	Hasiera	Amaiera		
Lurzoru Legearen 90.1 artikuluan jasotakoaren araberako kontsultak	01/07/2020	01/08/2020	Eusko Jaurlaritza: Ilurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila Segurtasun Saila Kultura eta Hizkuntza politika Saila Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Ingurumen Sailburuordetza Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza. URA. Ur Agentzia. Beste batzuk: Trantsizio ekologikorako eta erronka demografikorako Ministerioa. Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusia. Garraio Ministerioa, mugikortasuna eta hiri agenda. Aireportu eta Nabigazio Zibileko Zuzendariordetza Nagusia	Besteak beste, arrisku eta afekzio, ingurumen baldintzatzaile eta ondare kulturalari buruzko txostenak
Herritarren partaidetza programaren onarpena Osoko Bileran			Idazle taldea Udalbatza	Herritarren partaidetza programa

Erreferentziako agiria igorri osteko administrazio-egintzak, plan edo programaren izapideetan aurreikusita daudenak

Administrazio-egintza	Aurreikusitako data	Organo igorlea	Lotutako dokumentazioa (Arau-erref.)
Aurrerakinaren onspena	01/08/2022	Pasaiako Udaletxea	2/2006 Legea (87.3 Art.) IEE 21/2013 Legea eta 211/2012 Dekretua
Jendaurreko Informazioa	01/09/2022	Pasaiako Udaletxea	105/2008 Dekretua (32 Art.)
HAPOn irizpideen ezarpena	01/01/2023	Pasaiako Udaletxea	2/2006 Legea (90.4 Art.)
HAPOn Hasierako Onspena	01/01/2024	Pasaiako Udaletxea	105/2008 Dekretua (31, 32 Art.) IEE 21/2013 Legea eta
Jendaurreko Informazioa	04/06/2024	Pasaiako Udaletxea	105/2008 Dekretua (32 Art.)
HAPOn Behin-behineko Onspena	2025/01/01	Pasaiako Udaletxea	
Ingurumen memoriaren eskaria	01/01/2025	Pasaiako Udaletxea	21/2013 Legea 211/2012 Dekretua
EAEko LABari igorketa	01/06/2025	Pasaiako Udaletxea	
HAPOn Behin-betiko Onspena	01/01/2026	Pasaiako Udaletxea	

Plan edo programaren izapideetan zeharreko parte-hartze publikoaren azalpena

Esku hartzeko maila	Plan edo programaren izapideak egiteko fasea	Planaren edukia (Ordezko proposamenak eta horien zabaltasuna)	Esku hartzeko epea
Informazioa	Aurretik	Informazio-hitzaldia Parte-hartze digitala Parte-hartzea haur eta gazteekin Erakusketak	2021 ekainak 1 2021/06/01tik 07/01ra 16 saio
Kontsulta	Aurrerakina	Ereduraren alternatibak Hasierako Agiri Estrategikoa	Gutxienez bi hilabete

Esku hartzeko maila	Plan edo programaren izapideak egiteko fasea	Planaren edukia (Ordezko proposamenak eta horien zabaltasuna)	Esku hartzeko epea
Informazioa	HAPOn helburu eta irizpideak ezartzea	Ereduaren hautaketa	zehazteke
Informazioa	Hasierako Onespena	Egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua	Gutxienez hilabete 1
Informazioa	Behin Behineko Onespena	Egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua	Informazioa beti eskuragarri
Informazioa	Behin Betiko Onespena	Egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua	Informazioa beti eskuragarri

I.4.– Plan edo programaren ondorengo garapen-tresnak

Tresna mota	Azalpen sintetikoa	Izapideen egoera	Ingurumen- ebaluaziopean jartzea (IEE edo IIE) (Eginda edo aurreikusgarria)
Aurrerakin fasean ezin daiteke jakin zeintzuk izango diren HAPOn ondorengo garapen-tresnak. Kasuaren arabera, beharrezkoa dena egingo da: Plan partzialak, Plan bereziak, Xehetasun-azterketa, etb.	Egin klik edo sakatu hemen idazteko.	☐ Garapenik gabe (kasu orokorra) ☐ Aurrerapena ☐ Hasierako onespina, behinbehinekoa edo behin betikoa XBeste batzuk (zehaztu) Egin klik edo sakatu hemen testua idazteko.	Egin klik edo sakatu hemen testua idazteko.

II.– Administrazio-esparrua Erreferentziako ingurumen-helburuak eta -zehaztapenak identifikatzea.

II.1.– Aplikatu beharreko lurralde- eta ingurumen-araudia

Gaiak	Araudia (Zerrenda)	Helburuak (Ondoriozta daitezkeen ingurumen-helburuen zerrenda)	Garapen-irizpideak (Helburuak inplementatzeko irizpideen zerrenda)	Adierazleak (Helburuen jarraipena egiteko adierazleen zerrenda)
Biodibertsitatea	3/1998 Legea 42/2007 Legea 1/2014 Legegintzako Dekretua	Ingurumenaren, biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen babesa	Espezieen, habitaten eta eremuen kontserbazioa	Kaltetutako espezie kop. Kaltetutako habitaten edo intereseko eremuen azalera
Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola	Airea 208/50/CE Zuzentaraua 102/2011 Errege Dekretua 34/2007 Legea	Atmosferaren kutsaduraren prebentzioa	Arreta eta prebentziorako ekintza, iturrian kutsadura zuzentzea eta poluitzen duenak ordaindu egingo du.	Legeak xedatutako mugak betetzea
Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola	Ura 2008/105/CE Zuzentaraua 2006/118/CE Zuzentaraua 2000/60/CE Zuzentaraua 1/2016 Errege Dekretua 1/2006 Legea	Gainazaleko ur kontinentalen, trantsiziozko, itsasertzeko eta lurrazpiko uren babeserako esparrua zehaztea, narriatze gehigarria saihestuko duena eta ekosistema urtarrak babestuko eta hobetuko dituen	Ur-masen kontserbazio egoera onuragarria mantentzea edo lehengoratztea.	URAk ezarritako mugak Atzerapenak Jabari Publiko Hidraulikoa mantentzea

Gaiak	Araudia (Zerrenda)	Helburuak (Ondoriozta daitezkeen ingurumen-helburuen zerrenda)	Garapen-irizpideak (Helburuak inplementatzeko irizpideen zerrenda)	Adierazleak (Helburuen jarraipena egiteko adierazleen zerrenda)
Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola	Lurzoru kutsatuak 22/2011 Legea 4/2015 Errege Dekretua 1/2016 Errege Dekretua 1/2006 Legea	Lurzorua babestea, ekintza antropikoen ondorioz ezaugarri kimikoetan aldaketa egotea saihestuz.	Lurzoru kutsatuen baliozkoa den erregimena ezartzen du. Lurzoruaren kutsatzaile izan daitezkeen jardueren instalazioei betebeharrak ezartzea. Entitateen erregimen akreditazioa ikerketa eta lurzorua kalitatea berreskuratzeko jarduketak egiteko.	Kutsatuta egon daitezkeen lursail kop. Deskontaminatutako lurzorua azalera
Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola	Zarata 2002/49/CE Zuzentaraua 1513/2005 Errege Dekretua 37/2003 Legea 213/2012 Dekretua	Hots-kutsadurari aurre hartzeko, hura murrizteko eta zaintzeko arauak ezartzea, hots-kutsadurak pertsonen osasunean, ondasunetan eta ingurumenean eragin ditzakeen kalteak saihesteko eta urritzeko eta, bestetik, mekanismoak ezartzea ingurumeneko kalitate akustikoa hobetzeko	Ebaluazio akustikoa: zarata mapak eta ekintza-planak egitea. Zonakatze akustikoa eta zortasun akustikoa. Kalitate akustikoko helburuak eta immisioaren muga-balioak mugatu.	Kalitate Akustikoko Helburuak betetzea
Lurralde- eta hiri-antolamendua	4/1990 Legea 128/2019 Dekretua	Lurralde plangintza eta antolamenduko tresnen definizioa	LAGak, LPPk eta LAPk egitea	Lurzoruaren kalifikazioa, Populazio dentsitatea, Egoitzen garapena, Etxebizitza dentsitatea, Lurzoruaren artifizializazioaren garapena

Gaiak	Araudia (Zerrenda)	Helburuak (Ondoriozta daitezkeen ingurumen-helburuen zerrenda)	Garapen-irizpideak (Helburuak inplementatzeko irizpideen zerrenda)	Adierazleak (Helburuen jarraipena egiteko adierazleen zerrenda)
Historia- eta kultura-ondarea	16/1985 Legea 7/1990 Legea 6/2019 Legea	Defentsa, aberasketa eta babesa, baita euskal kultura ondarearen hedapena eta sustapena	Ondasunen kulturazko balioa ezagutzera emateko lana. Presako kasuetan, interesgarritasuna arriskuan izan dezaten ondare historikoko ondasunei bere onean eusteko beharrezko diren badaezpadako neurriak hartzea.	Aitortutako ondare elementu kop.
Informazio eta parte-hartze publikoa ingurumenean	Zuzentaraua 2003/4/CE 27/2006 Legea	Ingurumen- informazioa izateko, ingurumen- erasana duten erabakien prozeduretan parte-hartzea eta administrazio- epai- berrikuspenetan premiatzeko eskubideak arautzea.	Ingurumen informazioari buruzko betebeharrak zehazten ditu. Partaidetza publikoari buruzko eskubideak ematea. Justiziara iristea eta ingurumen kontuetan administrazio- babesa.	Ez du zehazten
Beste batzuk	2011/92/UE Zuzentaraua 21/2013 Legea 211/2012 Dekretua 46/2020 Dekretua	Planen eta programen ingurumen ebaluaketaren prozedura arautu	Ingurumen- efektuen azterketa eta neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen proposamena	Ingurumen- Azterketa Estrategikoak xedatutakoa, baita Ingurumen- Organoaren ebazpenean jasotakoak

II.2.– Plan edo programarekin zerikusia duten estrategiak eta planak, goragoko mailaren, antolatutako eremuaren edo planifikatutako gaiaren arabera, ingurumen-ebaluaziorako agiriak barne hartuta.

Tresnak (Zerrenda)	Egoera Administratiboa (Izapidetze- edo onartze- egoera)	Zehaztapen nagusien eta haien ingurumen-ebaluazioen laburpena [Hasierako agirian egindako analisiaren laburpena (500 karaktere/tresna)]
<u>Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak</u>	Behin Betiko Onespena (128/2019 Dekretua, uztailaren 30koa)	Antolamendu Kategorien eta Gainjarritako Baldintzatzaileen izaera orokorreko arauketa.
<u>Donostialdea-Bidasoa Beherea LPP</u>	Behin betiko Onespena (121/2016 Dekretua, uztailaren 27ekoa)	Lurraldearen Zatiko Planen (LPP) helburua lurraldearen antolamendurako eta egiturarako oinarritzko elementuak ezartzea da, sektore- eta udal-plangintzako gainerako tresna guztien erreferentzia izan daitezen. LPPak eremu funtzionala osatzen duten udalerri bakoitzaren bizitegi-ahalmena zehazten du, 8 urterako (2016-2024). Pasaiaarako, 727 etxebizitza ezartzen ditu gehienez, eta 364 gutxienez.
<u>Donostialdea-Bidasoa Beherea LPP</u>	1. aldaketa, 154/2020 Dekretua, irailaren 22koa, paisaiaren zehaztapenei buruzkoa.	LPParen lehen aldaketaren helburua paisaiaren zehaztapenak gomendiozko xedapen gisa sartzeta da. Paisaiaren zehaztapenak Eremu Funtzionalako paisaiaren kalitate-helburuen garapenaren emaitza dira. Paisaiaren zehaztapenak Donostialdea-Bidasoa Behereko Paisaiaren Katalogoan oinarritzen dira, 29 Paisaiaren Unitate ezartzen baititu; horietatik 17 Paisaiaren Interes Berezikotako Eremu (PIBE) gisa proposatzen dira, eta 30 Paisaiaren Kalitaterako Helburu gisa. Pasaian 6 Paisaia-unitate eta bi AEIP identifikatu dira
<u>Nekazaritza eta Basozaintzako LPS</u>	Behin-betiko Onespena (177/2014 Dekretua, irailaren 16koa)	Lurzoru ez Urbanizagarriaren kategorizazioa, Balio Estrategiko Altuko nekazal lurri arreta berezia emanez. Baldintzatzaile gainjarrien definizio, Onura Publikoko Mendiei dagokiena loteslea izanik. Gainera eraginaren definizioa, EPM-en mugaztapena loteslea izanik. Nekazaritzaren eragina behar bezala ebaluatzeko jarraibideak ezartzen ditu
<u>Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatutako LPS</u>	Aldaketaren Behin-betiko Onespena (449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa)	Ur-ibilguak sailkatzen ditu hiru osagai (hidraulikoa, ingurumenekoa eta hirigintzako) aintzat hartuta, eta kasu kasu, dagokion araudia zehazten du, eta ibarren hondoan dauden lursailen hirigintza-potentziala uholdeen ondoriozko arazo hidraulikoarekin bateragarri eginez (lurzoruaren erabilerak ezartzen ditu, uholde-arriskuaren arabera) eta ertzetako baldintza naturalak zainduz.
<u>Hezeguneen LPS</u>	Behin-betiko Onespena (160/04 Dekretua, uztailaren 27koa) 231/2012 Dekretuaren bidez aldatuta	Hezeguneen LPSak III. taldeko hezeguneen barruan sartzen ditu Jaizkibelgo guneko higro-zohikatzak osatzen duten 17 hezegune.

Tresnak (Zerrenda)	Egoera Administratiboa (Izapidetze- edo onartze- egoera)	Zehaztapen nagusien eta haien ingurumen-ebaluazioen laburpena [Hasierako agirian egindako analisiaren laburpena (500 karaktere/tresna)]
<u>Itsasertza</u> <u>Babesteko eta</u> <u>Antolatze LPS</u>	Behin betiko onespina (martxoaren 13 ko 43/2007ko Dekretua)	LPS honen antolamendu-eremua Kostaldeei buruzko Legean definitutako eragin-eremua da: "500 metroko gutxieneko zabalerako zerrenda, itsasertzaren barne-mugatik abiatuta neurtuta". Eremu hori ibai-ibilguetara hedatzen da, itsasaldien eragina nabaritzen den tokiraino; Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, itsas mailaren gaineko 5 metroko kotari dagokio. Hauek dira Pasaiaiko udal-mugartean agertzen diren antolamendu-kategoriak: babes berezia (zorrotza eta bateragarria), ingurumen-hobekuntza (ekosistemak hobetzeko eremuak eta leheneratu beharreko eremu degradatuak), basoa, nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala. Hirigintza-plangintzarako loteslea da ingurumen-babes berezi eta -hobekuntza gisa definitutako eremuak.
<u>EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatze LPSa</u>	Behin betiko onespina (abenduaren 21eko 262/2004 Dekretua). 10/2019 Legea, merkataritza-gune handien lurralde-antolamenduari buruzkoa	Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintzaren kuantifikazioa. Oarsoaldea eskualdea susperraldi ekonomikorako eta industria-birmoldaketako zonen hirigintza-berronertzerako sustapen-eremu gisa ezarri da. Merkataritza-gune handiak antolatze eta ezartzeko, B kategorian dago, eskualdeko zentralitatea duen udalerria.
<u>Trenbide sarearen LPSa</u>	Behin betiko onarpina 34/2005 Dekretua, otsailaren 22koa (Aldaketa)	Trenbideen eta horren ondoko eremuen plangintza eta kudeaketa (jabari-eremuak, zortasuna eta eragina). Erretereratik Pasaiaiko itsas portura sartzeko proposamena egin du. Ildo horretan, UIC zabalerako adar bat eraikitzea proposatzen da, Frantziako mugatik egungo merkantzien linearekin lotuko dena eta Madril-Irun linearen egungo trazadurari jarraituko diona Pasaiairaino
<u>Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPS</u>	Behin betiko onarpina (2/2013 Foru Araua, ekainaren 10ekoa)	Planak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarritzko Sarea sortzea proposatzen du, Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen Sare Osoaren bizkarrezurra. Oinarritzko sare horrek 439 km inguruko luzera du, eta Gipuzkoako hirigune nagusiak lotzen ditu elkarren artean. Hiri- eta hiriarteko bizikleta-azpiegituren multzoa da, bederatzi ardatz nagusitan edo ibilbidetan egituratuta; besteak beste, Donostia eta Irun arteko 1. ibilbidea, Pasaiaitik pasatuz. Gainera, lurraldez gaindiko izaera nabarmena du, mugakide diren lurraldeekiko loturak aurreikusten baititu, eta egituratzailea da, Lurralde Historikoko eskualde eta eremu funtzional guztiak igarotzen eta lotzen baititu. Irizpideak ezartzen dira aurretiazko proiektuetan eta eraikuntza-proiektuetan prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak zehazteko, bai eta ustiapen- eta sustapen-faserako ere.

Tresnak (Zerrenda)	Egoera Administratiboa (Izapidetze- edo onartze- egoera)	Zehaztapen nagusien eta haien ingurumen-ebaluazioen laburpena [Hasierako agirian egindako analisiaren laburpena (500 karaktere/tresna)]
Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren LPS	Aprobación definitiva (Decreto 24/2009, de 21 de julio)	Planak Gipuzkoan hiri-hondakinen etorkizuneko kudeaketa lortzeko behar diren azpiegituren kokapenari buruzko aurreikuspena jasotzen du, Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako araudi-dokumentuetan ezarritako iraunkortasun-irizpideei jarraikiz, eta Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean (PIGRUG) eta haren Aurrerapen Dokumentuan ezarritako helburuei erantzuten die. Pasaiaiko udalerrian ez da azpiegitura berririk aurreikusten
Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala. PIGRUG 2019-2030	Hasierako onarpena (2018ko uztailaren 25eko Foru Agindua)	PIGRUG 2019-2030 plana zabortegirik gabeko hiri-hondakinak kudeatzeko eredu batean oinarritzen da, eta produkzioari eta kontsumo jasangarriari buruzko neurriak garatzen ditu, produktuen bizi-ziklo osoan eta baliabideen erabilera eraginkorragoan zentratuz. Horrek ekonomia zirkularrerako trantsizioa egiten laguntzen du. Klima-aldaketaren aurkako borrokan bat egiten du, eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketan nabarmen eragiten duten neurriak jasotzen ditu. Konpromiso estrategikoak: - Prebentzioa maximizatzea edo hiri-hondakinen sorrera minimizatzea. - Berrerabilpena sustatzea eta berrerabiltzeko prestatzea. - Ahalik eta hondakin primario gehien gaika biltzea eta birziklatzea. - Ahalik eta biohondakin gehien gaika biltzea, konpostatzea eta biometanizatzea. - Bigarren mailako hondakin orokorren gehieneko balorizazioa. - Hondakin primarioen zero isurketa - Zaborra prebenitzea eta murriztea ibai eta itsas ingurunean, eta, oro har, ingurune naturalean. Nabarmendu behar da PIGRUGen helburuen artean % 70eko birziklapena lortzea dagoela 2030ean, Europako helburua baino bost puntu gehiago.

II.3.– Erreferentziako ingurumen-helburuak identifikatzea.

Tresnak (Zerrenda)	Identifikatutako ingurumen- helburuak (Ondoriozta daitezkeen ingurumen- helburuen zerrenda)	Haien aplikagarritasun- en justifikazioa [Testu sintetikoa (200 karaktere/helburu)]	Garapen-irizpideak (Helburu aplikagarri bakoitza garatzeko irizpideen zerrenda)	Adierazleak (Helburu aplikagarrien jarraipena egiteko adierazleen zerrenda)	Ezarritako edo proposatutako mugak [Helburu aplikagarriak bete direla jotzeko adierazleak hartu beharreko balioak (arrakasta- irizpidea)]
Garapen Iraunkorren Eusko Ingurumen Estrategia (2002- 2020)	1. helburua: Lurraldearen erabilera jasangarria lortzea. 2. helburua: Hainbat erabilera eta garapen jasangarria izaten utziko duen irisgarritasuna lortzea	Euskal gizarteak erdietsi behar dituen ingurumen- xedeak ezartzea du helburu, beraz, erreferentziak o ingurumen helburutzat hartu dira. Pasaiaiko HAPOren Berrikuspenak, zehazki 4. jomugaren barruan sartu daiteke, "Lurralde- oreka eta mugikortasu- na: ikuspegi komuna" , kontuan hartu beharreko helburuak eta jarduerak jasotzen ditu.	<u>1. helburua:</u> -Lekuaren banaketa eta lurraldeko jarduera sozioekonomikoen banaketa orekatua hobetzea. - Finkatutako hiri- berritu eta birgai- dadin sustatzea. -Hiriko guneen diseinu erakargarria eta bizi-kalitatea hobe daitezen sustatzea. -Hirigintzako plangintza lurralde- antolamenduko tresnen edukien helburuetara eta jasangarritasun- en irizpideetara egokitzea. -Natur elementuak hiri- paisaian txertatzea sustatzea. <u>2. helburua:</u> - Mugikortasunaren beharrak murriztea; horretarako, ez dira babestu behar motorizatuen eskaria areagotzea eragingo duen hirigintzako jarduerak eta erabilerak.	-Lurzoruaren artifizializazio maila -Baliabide naturalen kontsumoa (ura, energia, materialak) -Berotegi- efektuko gasen emisioak	-Lurzoruaren artifizializazio a geratu -Lehengaien kontsumoa murriztu (ura, energia, materialak) -Negutegi efektua eragiten duten gasen emisioa murriztu

Tresnak (Zerrenda)	Identifikatutako ingurumen- helburuak (Ondoriozta daitezkeen ingurumen- helburuen zerrenda)	Haien aplikagarritasun- en justifikazioa [Testu sintetikoa (200 karaktere/helburu)]	Garapen-irizpideak (Helburu aplikagarri bakoitza garatzeko irizpideen zerrenda)	Adierazleak (Helburu aplikagarrien jarraipena egiteko adierazleen zerrenda)	Ezarritako edo proposatutako mugak [Helburu aplikagarriak bete direla jotzeko adierazleek hartu beharreko balioak (arrakasta- irizpideak)]
Ingurumen Esparru Programa (2015- 2020)	-Kapital natural zaindu, babestu eta lehengoratzeko, ekosistemak babestuz. -Zerbitzuak modu eraginkorrean erabili eta karbono gutxiago erabiliko duen ekonomia lehiakor eta berritzaile batera abiatu. -Herriarren osasuna eta ongizatea bultzatu eta babestu. -Lurraldearen jasangarritasuna areagotu. -Politiken koherentzia bermatu, ingurumenaren integrazioa areagotuz. -Euskadiren nazioarteko erantzukizuna eta proiektzioan lagundu.	Ongizatea eta bizi kalitatea kapital naturalean oinarritzen dira. Lurralde jasangarria bizi-kalitatearen sinonimoa da. Arazo horiei erantzuteko giltzarria da hiriko espazioa antolatze eta diseinatze politikak jasangarriak aplikatzea; horrelakoek, hainbat alderdi hartu behar dituzte barruan, hala nola baliabide energetiko eta materialen erabilera eraginkorra, karbono isurketa txikiko ekonomia, klima-aldaketara egokitzea, lurzoruen erabilera jasangarria, hondakinen eta lurzoru kutsatuen kudeaketa, ekosistemen erresilientzia, uraren kudeaketa eta giza osasuna.	-Ekosistemen eta haien zerbitzuen galerei mugak jartzea -Lurzoruaren okupazioari galga jartzea, erabilera nahasketa eta espazio degradatuen eraberritzea eta berrerrabilpena erraztuz -Pertsonen kontsumo arduratsua bultzatzea -Azpiegitura berdeak garatzea eta ezartzea -klima-aldaketa arintzeko, berorretara egokitzeko eta onura ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak gehitzeko izadia lurraldean integratzen duten soluzioen bitartean -Pertsonen eta salerosgaien mugikortasun jasangarriak hiri-eremuak mesedetzea -Energiaren, uraren, hondakinen eta lurzoruen erabilpen arduratsua potentziatzea lurraldean	- Lurzoruaren artifizializazio maila -Uren kalitatea -Airearen kalitatea - Babestutako eremuen azalera -Baliabide naturalen kontsumoa (ura, energia, materialak) -Berotegi-efektuko gasen emisioak	-Lurzoruaren artifizializazioa geratu - Gainazaleko uren kalitate ona -Airearen kalitate ona - Babestutako eremuen azalera handitu -Lehengaien kontsumoa murriztu (ura, energia, materialak) -Negutegi efektua eragiten duten gasen emisioa murriztu



Tresnak (Zerrenda)	Identifikatutako ingurumen- helburuak (Ondorioztu daitezkeen ingurumen- helburuen zerrenda)	Haien aplikagarritasun- en justifikazioa [Testu sintetikoa (200 karaktere/helburu)]	Garapen-irizpideak (Helburu aplikagarri bakoitza garatzeko irizpideen zerrenda)	Adierazleak (Helburu aplikagarrien jarraipena egiteko adierazleen zerrenda)	Ezarritako edo proposatutako mugak [Helburu aplikagarriak bete direla jotzeko adierazleak hartu beharreko balioak (arrakasta- irizpidea)]
Klima- Aldaketaren Aurkako Euskal Estrategia. KLIMA 2050	-Karbono gutxiko energia-eredu baten alde egitea. -Emisiorik gabeko garraio baterantz aurrera egitea. -Lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia areagotzea. -Natura ingurunearen erresilientzia handitzea. -Lehen sektorearen erresilientzia handitzea eta haren emisioak murriztea. -Hiri-hondakinen sorrera murriztea eta zero isurpen lortzea -trataerarik gabe. -Arriskuei aurre hartzea. -Berrikuntza, hobekuntza eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea. -Euskal Administrazio Publikoa arduratsu, eredu eta erreferente da klima-alaketaren arloan.	Epe ertainera eta luzera klima aldaketa arintzeko eta aldaketara egokitzeko helburuak dituen plangintza baliabidea da.	-Eraginkortasun energetikoa hobetzea eta energia-eskaera kudeatzea. -Eraginkortasun energetikoaren eta energia berriztagarrien arloko irizpideak sustatzea hiri-ingurunean, «zero emisiodun eraikuntzak» lortzearen -Intermodalitatea eta BEG emisio txikiagoak dituzten garraio bideak bultzatzea. -Klima-alaketarekiko erresilientea, konpaktua eta erabilera mistoa den hiri-egitura bultzatzea. -Lurralde-estrategian zaurgarritasunaren analisia eta klima-alaketarako egokitzapena txertatzea. -Ekosistema naturalen multifuntzionaltasuna sustatzea -prozesu biologikoen eta geologikoen erregulatzaile gisa, espezie eta habitat zaurgarriak lehengoratz. -Epe luzera begira ur-hornidura hainbat erabileratarako bermatzea. -Eraikitako ingurunearen eta azpiegitura kritikoenerresilientzia bermatzea -muturreko gertaeren aurrean.	-BEG emisio guztiak -Energia berriztagarrien kontsumoaren ehunekoa azken kontsumoarekiko	-Berotegi efektuko gasen igorpenak gutxienez % 40 murriztea 2030 erako eta % 80 murriztea 2050 urterako, 2005ekoak erreferentziatzat hartuta. -Energia berriztagarrien kontsumo amaierako kontsumoaren % 40 izatera iristea 2050 urtean.

Tresnak (Zerrenda)	Identifikatutako ingurumen- helburuak (Ondoriozta daitezkeen ingurumen- helburuen zerrenda)	Haien aplikagarritasun- en justifikazioa [Testu sintetikoa (200 karaktere/helburu)]	Garapen-irizpideak (Helburu aplikagarri bakoitza garatzeko irizpideen zerrenda)	Adierazleak (Helburu aplikagarrien jarraipena egiteko adierazleen zerrenda)	Ezarritako edo proposatutako mugak [Helburu aplikagarriak bete direla jotzeko adierazleak hartu beharreko balioak (arrakasta- irizpidea)]
Gipuzkoako klima aldaketaren aurkako borroka estrategia 2050	Helburu klimatikoak: -Arintzea: isurpenak murriztea. - Egokitzapena: erresistentzia handitzea eta klima- aldaketaren efektu negatiboen aurreko ahulezia murriztea.	2050erako ekonomia hipokarboniko lehiakorren ibilbide-orriak, trantsizio prozesuan traktoreak izan behar diren sektoreak aipatzen ditu (energia berriztagarriak , lurralde antolamendua eta hiri- plangintza), garraio eredu jasangarriagoa eta eraginkorragoa , 0 emisioak dituzten eraikinak ugaritzea baita karbonoa hartzeko eta metatzeko teknologiak ere.	- Karbono gutxiko energia-eredu baten alde egitea -Isurpenik gabeko garraio baterantz aurrera egitea -Lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia areagotzea -Natura ingurunearen erresilientzia handitzea -Lehen sektorearen erresilientzia handitzea eta haren emisioak murriztea -Hiri-hondakinen sorrera murriztea eta zero isurpen -Arriskuei aurre hartzea -Berrikuntza, hobekuntza eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea -Gipuzkoako Administrazio Publikoa arduratsu, eredu eta erreferente da klima-aldaketaren arloan	- BEG emisio guztiak -Energia berriztagarrien kontsumoaren ehunekoa azken kontsumoareki ko	-Berotegi efektuko gasen igorpenak gutxienez % 40 murriztea 2030 erako eta % 80 murriztea 2050 urterako, 2005ekoak erreferentziaz at hartuta. -Energia berriztagarriar en kontsumoa amaierako kontsumoaren % 80 izatera iristea 2050 urtean, epe- erdiko helburu gisa % 30 izatea 2030 urtean.

III.– Ebaluatu beharreko plan edo programaren laburpena

III.1.– Antolamenduaren lurralde-esparrua eta ezaugarri orokorrak

Azalpena

Pasaiaiko udalerri osoa:

a) Izaera minimoaz, udalerri osoaren egiturazko antolamendua eta Plan Orokorrak hiri-lurzoru kontsolidatu kategorian sartuko duen hiri-lurzoruaren antolamendu zehatza.

b) Aukeran, sektorizatutako lurzoru urbanizagarriaren eta Plan Orokorrak hiri-lurzoru kontsolidatu kategorian sartuko ez duen hiri-lurzoruaren antolamendu zehatza, bi kasuetan antolamendua garapenezko planeamendura igorri ahalko da

III.2.– Plangintzarako proposatutako helburuen eta irizpide orokorren laburpena

Planaren funtsezko helburuak eta garapen-irizpideak

